

LAZKAO / Deskontuak euskaraz irakurtzeagatik

'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpainaren hirugarren edizioa martxan jarri du Goierriko Euskal Eskolak

Irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak azken urteotan hainbat herritan abian jarri duen 'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoaren beste edizio bat iritsi zaigu Lazkaora, Goierriko Euskal Eskola elkartearen eskutik. Hirugarren urtea izango du herrian, eta datorren apirilaren 23an hasi eta uztailaren 23a luzatuko da.

Egitasmoaren funtzionamendua erraza da. Euskaraz edozein liburu irakurri ostean, udal liburutegian fitxa bat bete beharko da. Behin fitxa beteta, liburuzainak deskontu txartela emango du trukean eta txartel hori Gerriko liburudendara eramatea besterik ez da izango euskarazko liburu bat erosterakoan %25eko deskontua izateko. %50ekoa GEEko kidea izanez gero. "Fitxako galderak oso errazak dira eta, gainera, adinaren arabera sailkatuta daude: 0-6 urte, 7-12, 12-18 eta 18 urtetik gora", dio Joxepa Madariaga GEEko teknikariak. Adibide bat jartzearen, 'zer da gehien gustatu zaizuna?' edo 'idazle beraren liburu gehiago irakurri dituzu?' tankerako galderak erantzun beharko dira.

"Liburuzaleentzat eskaintza polita dela uste dut, baita horrenbeste irakurtzen ez dutenentzat ere. Liburuak oso merke erosteko aukera dago", nabarmentzen du Madariagak.

Izan ere, hasieratik harrera ona izan du ekimen honek lazkaotarren artean, eta aurten ere hala izatea espero dute sustatzaileek. "Iaz 200 fitxa inguru bete ziren, lehenengo urtean baino gehiago. Jendea egitasmoa ezagutuz doa, ahoz ahokoak asko egiten du halakoetan, eta horrexegatik aurten oraindik ere hobe joatea espero dugu".

Eskaintza Lazkaon burutzen bada ere, ez dago lazkaotarrei mugatua. "Ingurukoentzat ere ateak zabalik ditugu. Hala ere, gure nahia etorkizunean egitasmo hau Goierriira zabaltzea litzateke. Ez agian herri guztietara, baina bai interesa azaltzen dutenetara. Elkarlana beti garrantzitsua da". GEEkin batera, Udalak, Mazpidek eta Ikastolak ere parte hartzen dute kanpaina honetan.